XEDATU DUT:

*Atal bakarra.*– Soin hezkuntzako Euskal Erakundean (SHEE / IVEF) sartzeko plazaratu diren probetarako izen emateari dagokion prezio publikoa 8.000 PTAkoa izango da.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko maiatzaren 9a.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

DISPONGO:

*Artículo único.*– El precio público del derecho de inscripción en las pruebas convocadas para el ingreso en el Instituto Vasco de Educación Física (SHEE / IVEF) será de 8.000 PTA.

DISPOCICIÓN FINAL

La presente orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de mayo del 2000.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

## GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA
## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

### Zk-2199

AGINDUA, 2000ko apirilaren 17koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena eta Garraio eta Herri Lan sailburuarena, Garraio eta Herri Lan Saileko kontratazio mahaia sortzeko Agindua aldatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, 1996ko uztailaren 12an Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta Garraio eta Herri Lan sailburuak Garraio eta Herri Lan Saileko kontratazio mahaia sortzeko Agindua onartu zuten. Geroztik, ordea, Garraio eta Herri Lan Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzen dituen urtarrilaren 18ko 10/2000 Dekretua onartu da, eta horrek aldaketak ekarri ditu kontratazio arloan eskumenak dituzten Garraio eta Herri Lan Saileko organoetan, eta, ondorioz, baita kontratazio mahaiaren osaketan ere. Beraz, Agindu hura aldatu beharra dago.

Honenbestez, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen txostena aztertu ondoren,

XEDATU DUGU:

*Artikulu bakarra.*– Garraio eta Herri Lan Saileko kontratazio mahaia sortzeko Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta Garraio eta Herri Lan sailbu-

## DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS
## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

### N°-2199

ORDEN de 17 de abril de 2000, de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Transportes y Obras Públicas, de modificación de la Orden de creación de la Mesa de Contratación del Departamento de Transportes y Obras Públicas.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 4 del Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre régimen de la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se dictó la Orden de 12 de julio de 1996, de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Transportes y Obras Públicas, de creación de la Mesa de Contratación del Departamento de Transportes y Obras Públicas. Posteriormente, se ha dictado el Decreto 10/2000, de 18 de enero, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas, que ha afectado a las atribuciones de los órganos departamentales en materia de contratación y en consecuencia a la composición de la mesa de contratación, por lo que procede la modificación de la citada Orden.

En su virtud, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa,

DISPONEMOS:

*Artículo único.*– Modificar los epígrafes a) y d) del párrafo 2 del artículo único de la Orden de 12 de julio de 1996, de los Consejeros de Hacienda y Administra-

ruak 1996ko uztailaren 12an onartutako Aginduaren artikulu bakarraren 2. paragrafoaren a) eta d) idatz-zatiak aldatzea, eta honela uztea:

«a) Lehendakaria: Garraio eta Herri Lan sailburuordea. Lanpostua bete gabe dagoenean, sailburuordea ez dagoenean, gaisorik dagoenean edo legezko beste arrazoi bat ematen denean, Zerbitzu Zuzendaritzako Finantzen Administrazioko arduradunak ordezkatuko du.

d) Lege aholkulari izango den mahaikide-idazkaria: Zerbitzu Zuzendaritzako Kontratazio arduraduna izango da idazkaritza eta lege aholkularitzaren ardura hartuko duena, boza eta botoarekin. Lanpostua bete gabe dagoenean, Kontratazio arduraduna ez dagoenean, gaisorik dagoenean edo legezko beste arrazoi bat gertatzen denean, Zerbitzu Zuzendaritzako Kontratazio Zerbitzuko zuzenbidean lizentziatu den teknikari batek ordezkatuko du.»

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko apirilaren 17a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
ALVARO AMANN RABANERA.

ción Pública y de Transportes y Obras Públicas, de creación de la Mesa de Contratación del Departamento de Transportes y Obras Públicas, en los siguientes términos:

«a) Presidente: el Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas. En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal será suplido por el Responsable Administrativo-Financiero de la Dirección de Servicios.

d) Secretario-Vocal-Asesor Jurídico: la Responsable de Contratación de la Dirección de Servicios, que ejercerá las funciones de Asesora Jurídica y Secretaria de la Mesa con voz y voto. En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal será suplida por un técnico licenciado en Derecho del Servicio de Contratación de la Dirección de Servicios.»

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de abril de 2000.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,
ALVARO AMANN RABANERA.